

memoria **2017** agiria



Aurkibidea

Bizkaiko Garraio Partzuergoa, BGP	1
Bilboko Tren Metropolitarra	10
Garraio Publikoaren Koordinazioa	23
2017ko Finantzaketa	44
2017ko Gertaera garrantzitsuak	49
2017ko Kontuak	56



Conectad@s con lo nuestro

Egilea: Manuela Gallardo

"Mi vida en el transporte público" kategoriarako saria.

Bizkaiko Garraio Partzuergoa, BGP

Bizkaiko Garraio Partzuergoa, BGP

1975eko abenduaren 30ean aldarrikatu zen Estatuko lehenengo Garraio Partzuergoa eratzea ahalbidetu zuen legea: Bizkaiko Garraio Partzuergoa. Lege horrek ondoko eskumen hauek ezarri zituen, erakundeak garatu zituzten:

- a) Bilboko Tren Metropolitarraren obren finantzaketa, eta beraren gainegiturako proiektu eta obrak eta ekipamendu orokorra lortzea.
- b) Bilboko Tren Metropolitarraren ustiapenaren kudeaketa, Metro Bilbao S.A.ren bidez, oso-osorik Bizkaiko Garraio Partzuergoarena dena.
- c) Bizkaiko lurralde-eremuko garraio sistemaren funtzionamenduaren zaintza, gainerako administrazioekin batera beharrezko neurriak hartuz.
- d) Garraio gaitan ematen zaizkion eskumenak betetzea, Bizkaiko garraio publikoa antolatze eta koordinatzeko plan baten bidez.

Lehenengo bi eskumen arloen garapenari esker, 1995eko azaroaren 11n Metro Bilbaoren 1. linea inauguratu zen, eta 2002ko apirilean, 2. linea. Haien ustiapena Metro Bilbao S.A.ri dagokio.

Autonomia Estatutuarekin eta Itun Ekonomikoarekin BGParen jardueraren behin betiko bultzada iritsi zen. 1980an estatuak Bizkaiko Garraio Partzuergoari dagozkion eskumenak eman zizkion Euskal Autonomia Erkidegoari.

Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak osatzen dute erakundea, baita Bilboko Hiri Trenbidea handik igarotzen delako ukitzen diren gainerako udalak ere; Eusko Jaurlaritzak haren %50 finantzatzen du eta Bizkaiko Foru Aldundiak beste %50a.

Kudeaketa organoak

Partzuergoa, bere izaera dela-eta, erakunde plurala da. Bizkaiko garraio publikoan lan egiten duten administrazio guztiek bere lekua dute bertan. Partzuergoaren jardueran Bilboko Tren Metropolitarraren garapena (partzuergoaren ardatza dena) eta garraioa koordinatzeko jarduketan ezarpena dira alor garrantzitsuenak.

Eman zaizkion helburuak betetzeko, Bizkaiko Garraio Partzuergoak kudeaketa organo hauek dauzka:

Kontseilu Nagusia.
Batzorde Betearazlea.
Zuzendari nagusia.

Kontseilu Nagusia eta **Batzorde Betearazlea** partzuergoko kide anitzeko organoak dira, eta eztabaidatzeko, erabakitze eta betearazteko funtzioak (estatutuetan aipatuak) betetzen dituzte.

Zuzendari nagusia pertsona bakarreko organoa da. Bizkaiko Garraio Partzuergoaren jardunaren zuzendaritza administratiboa eta teknikoa dagozkio, kide anitzeko organoek ematen dizkioten jarraibideak betez.

Kontseilu Nagusiak diziplina zehatzak aztertze txostenak egin ditu.

2017ko abenduaren 31n ondoko hauek zeuden:

Programazio eta Garapen Teknikoko ponentziak
Antolaketako, Koordinazioko eta Araubide Juridikoko ponentzia
Ogasuneko, Finantzaketako eta Gai Ekonomikoetako ponentzia
Plangintzako eta Abian Jartzeko ponentzia
Tarifak Integratzeko Batzorde

Kontseilu Nagusia

Bizkaiko Garraio Partzuergoko kudeaketa organo gorena da. Haren kideek zerikusia duten administrazioak ordezkatzeko dituzte. 2017an, Kontseilu Nagusia 6 aldiz batzartu zen.

2017ko abenduaren 31n, Kontseilu Nagusiak kide hauek zeuzkan:

Presidente

Unai Rementería Maiz jn.
Bizkaiko Ahaldu Nagusia

Presidenteordea

Andoni Busquet Elorrieta jn.
Basauriko Udaleko alkatea

Kontseilariak

Vicente Reyes Martin jn.
Garraioak, Mugikortasuna eta Lurralde Kohesioa foru diputatua
Bizkaiko Foru Aldundia

Alberto Alberdi Larizgoitia jn.
Ekonomía, Finantzak eta Aurrekontu sailburuordea
Ogasun eta Ekonomia Saila
Eusko Jurlaritzza

Antonio Aiz Salazar jn.
Azpiegitura eta Garraioko sailburuordea
Ekonomiaren Garapena eta Azpiegitura Saila
Eusko Jurlaritzza

Hernando Lacalle Edeso jn.
Aurrekontuetako zuzendaria
Ogasun eta Finantza Saila
Eusko Jurlaritzza

Mikel Gurutzeaga Zubillaga jn.
Garraioen Azpiegiturako zuzendaria
Ekonomiaren Garapena eta Azpiegitura Saila
Eusko Jurlaritzza

Janire Bijuesca Bedialauneta and.
Garraio Plangintzaren zuzendaria
Ekonomiaren Garapena eta Azpiegitura Saila
Eusko Jurlaritzza

María Aranzazu Leturiondo Aranzamendi and.
Lurralde Plangintzaren sailburuordea
Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila
Eusko Jurlaritzza

Iván Pedreira Lanchas jn.
Ingurumen Administrazioaren zuzendaria
Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila
Eusko Jaurlaritza

Aitor Zulueta Tellería jn.
Natura Ondare eta Klima Aldaketako zuzendaria
Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila
Eusko Jaurlaritza

Imanol Goenaga Egibar jn.
Berrikuntza eta Nazioartekotze arloko aholkularia
Ekonomiaren Garapena eta Azpiegitura Saila
Eusko Jaurlaritza

Manuel Leza Olaizola jn.
Euskotrenbideak / Ferrocarriles Vascos, S.A.-ko zuzendari nagusia

Aitor Garitano Trojaola jn.
Euskal Trenbide Sarea-ko zuzendari nagusia

Julián Ferraz Sumillera jn.
Euskal Trenbide Sareako Plangintza eta Proiektuen zuzendaria

Juan María Aburto Rique jn.
Bilboko Udaleko alkate-udalburua

Joseba Goikouria Zarraga jn.
Erandioko Udaleko alkatea

Lorenzo Oliva Santamaria jn.
Etxebarriko Udaleko alkatea

Mikel Torres Lorenzo jn.
Portugaleteko Udaleko alkatea

Amaia del Campo Berasategi and.
Barakaldoko Udaleko alkatea

Josu Bergara López jn.
Sestaoko Udaleko alkatea

Imanol Landa Jáuregui jn.
Getxoko Udaleko alkatea

Alfonso Gil Invernón jn.
Bilboko Udaleko zinegotzia

Luis Ángel Urdiales Villanueva jn.
Santurtziko Udaleko zinegotzia

José Alfonso López Arevalillo jn.
Leioako Udaleko zinegotzia

Gorka Ugalde Martínez jn.
Bizkaiko Garraio Partzuergoaren zuzendari nagusia

Eneko Aurrebarrena Elizondo jn.
Metro Bilbao, S.A.ren zuzendari nagusia



Camino al pasado sobre raíles
Egila: Raúl Montejo

Batzorde Betearazlea

Batzorde Betearazlea 6 aldiz batzartu zen 2017. urtean.

Urte horretako abenduaren 31n, organo horrek kide hauek zeuzkan:

Presidente

Unai Rementería Maiz jn.
Bizkaiko Ahdun Nagusia

Presidenteordea

Andoni Busquet Elorrieta jn.
Basauriko Udaleko alkatea

Kontseilariak

Alberto Alberdi Larizgoitia jn.
Ekonomía, Finantzak eta Aurrekontu sailburuordea
Ogasun eta Ekonomia Saila
Eusko Jurlaritz

Antonio Aiz Salazar jn.
Azpiegitura eta Garraioko sailburuordea
Ekonomiaren Garapena eta Azpiegitura Saila
Eusko Jurlaritz

Hernando Lacalle Edeso jn.
Aurrekontuetako zuzendaria
Ogasun eta Finantza Saila
Eusko Jurlaritz

Mikel Gurutzeaga Zubillaga jn.
Garraioen Azpiegiturako zuzendaria
Ekonomiaren Garapena eta Azpiegitura Saila
Eusko Jurlaritz

Janire Bijuesca Bedialauneta and.
Garraio Plangintzaren zuzendaria
Ekonomiaren Garapena eta Azpiegitura Saila
Eusko Jaurlaritza

Juan María Aburto Rique jn.
Bilboko Udaleko alkate-udalburua

Mikel Torres Lorenzo jn.
Portugaleteko Udaleko alkatea


Gorka Ugalde Martínez jn.
Bizkaiko Garraio Partzuergoaren zuzendari nagusia



Estación de San Nicolás
Egilea: Basaguren Martínez

Bilboko tren metropolitarra

1. grafikoa. Metro Bilbaoko bidaiarien bilakaera.



BILBOKO METROA

USTIAPENA

Bizkaiko Garraio Partzuergoak Metro Bilbao S.A. enpresa sortu zuen 1993. urtean, Bilbo Metropoliko Trenbidea kudeatzeko asmoz. BGP da enpresa horren kapitalaren jabe bakarra, eta ondasunen jabetza BMTren bidez mantentzen du.

1995. urtean BMTren 1. linea martxan jarri zen. 2002ko apirilaren 13an 2. linea inauguratu zen, lehenengo fasean, San Inaziotik Urbinagara. 2005eko urtarrilaren 8an, Urbinaga-Sestao eta Etxebarri-Ariz tarteak; 2007ko urtarrilean Sestao-Portugalete tarte ireki zen, eta 2009ko uztailaren 4an Portugalete-Santurtzi tarte abiatu zen, Peñota eta Santurtzi geltokiekin. Azken geltoki horrek 2010eko irailean Mamariga auzoaren sarbidea gehitu zuen, funikular automatiko baten bidez. 2011n Ariz-Basauri tarte abian jarri zen. Geltokiak otsailean eta azaroan inauguratu ziren, hurrenez hurren. Santurtzi-Kabiezes tartearen inaugurazioarekin burutu zen 2. linea, 2014ko ekainaren 28an, hain zuzen ere.

Apirilaren 8an metroko 3. linea inauguratu zen (Matiko-Kukullaga). Linea horren operadorea Euskotrenbideak da; hala ere, herritarrentzat metro sistema (1. L, 2. L eta 3. L) sare bakarra da.

2017. urtean BMTren bidaiari kopurua 88.172.137 pertsona izan ziren.

2. LINEA			
PLANA	TARTEAK	ALDIAK	ZENBATEKOA (eguneko milioi €)
1. fasea	S. Inazio-Urbinaga Bolueta-Etxebarri	1997-2002	268,5M€
2. fasea	Urbinaga-Sestao Etxebarri-Ariz	2001-2005	177,0M€
	Sestao-Portugalete	2002-2007	
3. fasea	Portugalete-Santurtzi Santurtzi-Kabiezes Ariz-Basauri	2005-2009 2009-2014 2006-2012	423,5M€

BMT-N EGINDAKO INBERTSIOAK

Bilboko Metroaren inbertsioen plangintza betearazlea Inbertsio Planetik eratortzen da. Dokumentu krono-finantzero horretan datozen urteetan egin nahi diren jarduketa guztiak deskribatzen eta aztertzen dira, bakoitzaren balorazio ekonomikoarekin.

1. lineako lehenengo fasea, Plentzia-Zazpi Kaleak, 1995. urtean ireki zen; eta 1997ko uztaillean Zazpi Kaleetatik Boluetaraino heldu zen. Lehenengo linea horren kostu osoa 615 milioi euro (egunekoak) izan ziren.

Une honetan 2. linea egiten ari da, segidako 3 fasetan egituratua. Fase horietako hirugarrena martxan dago, Portugaletetik Kabiezeseraino eta Arizetik Basauriraino. Azken tarte hori 2011n ireki zen eta Kabiezesko geltokia 2014ko ekainaren 28an ireki zen.

Linea bakoitzaren faseak amaitu eta abian jarri ostean, BGP horietan inbertsioak egiten jarraitzen du; beharrezkoak diren jardunak egiten ditu, hobekuntza teknologikoak sartzen ditu, zaharkituta dauden ekipoak berritzen ditu, obrak eta lanak egiten ditu bi lineetan eta zerbitzu nagusietan. Jardun berezi horiek 126,5 milioi eurokoak izan dira. Inbertsio horien artetik, azpimarratzekoa da Urdulizko geltokia lurperatzeko egindakoa. 2014an eki zitzaion proiektu hori eta 2017ko apirilean inauguratu zela.

Bilbo Metropoliko Trenbidearen 2. linea egiteak eta ustiatzeak hiru jarduketa-mota dakartza: azpiegiturako obra, gainegiturako obra, eta material mugikorra erostea. Bakoitzaren erantzukizuna bi erakunderi dagokie: lehena, Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Sailari; eta beste biak, Bizkaiko Garraio Partzuergoari.

AZPIEGITURA

Azpiegiturako obra zibilean tunelak, geltokiak, zubiak eta bidezubiak sartzten dira. Gainera, ekipamendu elektromekanikoen dotazioa sartzten da hemen, geltokien funtzionamendu egokirako funtsezko elementuak haien barruan garraio bertikala bideratzeko (igogailuak eta eskailera mekanikoak). Baita haien aireztapena eta larrialdietako tunelen aireztapena eta ponpaketa ekipamenduak ere (tuneletatik ura ateratzeko, beharrezkoa balitz).

Azpiegiturako obra hau egitea Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Sailaren eskumena da. Eusko Trenbide Sarearen (ETS) bidez, hau da, proiektuak idazten, lizitatzen eta haien lanak zuzentzen dituen sozietate publikoaren bidez, egiten da. Obra amaitutakoan, Bizkaiko Garraio Partzuergoari ematen zaio, ustiatzeko.

GAINEGITURA

BGP eskuduna da 2. linearen gainegiturari dagokionez. Termino horretan, trenbideko, katenariako eta trenaren seinaleztatze eta segurtasun ekipamendu guztietako kontratuak sartzten dira. Era berean, txartelen sistemaren eta gela teknikoaren arduraduna da, baita material mugikorraren erosketarena ere.

BMTren erabilera eta onarpena bultzatzen dituzten faktoreetako bat da haren eraikuntzan punta-puntako aurrerapen teknologikoak kontuan izan direla. Aurrerapen horiei esker, ustiapenaren kalitateak eta erabiltzaileen segurtasunak oso maila handiak lortu dituzte. 1. linea ireki zenetik (1995eko azaroan), Bilboko metroaren sistemetan hobekuntzak egin dira, aurrerapen teknologikoak merkaturatzen joan diren neurrian.

Jarraian gainegituraren ezaugarriak eta elementurik azpimarragarrienak ageri dira eta 2017az geroztik gainegitura horretan egindako lanak ere bildu dira. Izan duen garrantziagatik, Urdulizko lurperatzea aipatu beharra dago, bertan egindako jarduketak mota askotakoak izan baitira.

Urdulizko lurperatzea

ETSk eta BGPK batera gauzatu zuten Urdulizko geltokiaren lurperatzea. Obra 2015ean hasi zen, eta zerbitzua 2017ko apirilaren 10ean jarri zen abian ostera ere. Jarduketa gehienak 2016an eta 2017an izan dira.

Ordezko autobusen zerbitzu bat ere kontratatatu behar izan da Sopelako eta Plentziako geltokien artean, obrek iraun bitartean.

Obrak hasi aurretik gauzatu behar izan diren jarduketak ez ezik, Urdulizko geltokia lurperatzeko egin beharreko lanak ere egin dira 2017. urtean, zehazki, gainegituran, seinaleztapenean, katenarian eta Aginte Postu Zentralizatuan (AMN).

2017ean zehar Urdulizen geltokiaren lurperatzea burutzeko lan desberdinak kontratatzen dira egiteko BMTen:

- Larrabasterra-Urduliz bide-zatiko ATP eta ATO eta seinaleztapen-sistemak egokitzeko beharrezko lanak, Urdulizko geltokia lurperatzeko aurreikusita dauden behin-behineko jarduketak direla-eta.
- Honakoak izan ziren katenarian egindako lanak: BMTren Sopelako geltokiaren inguruan dagoen *bretelle* bideko gailuan aireko orratzak jarri ziren, Urdulizko geltokia lurperatzeko obren ustiapenera egokitzeko.
- Trabajos en el Puesto de Mando Centralizado del FMB para adaptarlo al soterramiento de la estación de Urduliz.
- Trabajos de renovación de postes y macizos del tramo Urduliz-Plentzia de la catenaria del FMB.
- Proyecto de Señalización del tramo Sopela-Plentzia del FMB.
- Suministro del Proyecto de Comunicaciones del tramo Sopela-Plentzia del FMB.
- Proyecto de la obra de instalación del ascensor de la nueva estación de Urduliz del FMB.



Foster-Hito en Urduliz
Egilea: Cristina Vañes

Trenbideetako seinaleztapena eta ATP/ATO

Metro Bilbaoren zirkulazioan, segurtasuna katigamenduei esker bermatzen da, hau da, linearen tarteetan dauden ekipoak, trenen posizioari buruzko informazioa eta seinaleen, diskoen eta orratzen egoerari buruzko informazioa ematen dutenak.

BMTren egungo azpiegiturak, beraz, 9 katigamendu elektriko eta 14 katigamendu elektroniko ditu. Katigamenduez gain, BMTkk ATP ATO sistema du, ATOren kasuan (trenbidearen elementuen egoeraren arabera puntu bakoitzean gehieneko abiadura) gidatzea ikuskatzeko edo ATOren kasuan zuzenean automatikoki gidatzeko.

Seinaleztapen sistemak bi motatako orratz-eragingailuak ditu: elektrikoak erreduktore eta lozagiarekin eta elektro-hidraulikoak.

Tokiko agente-koadroak eta agente-mahai nagusiak osatzen dituzte katigamenduen agente-sistemak eta horren bidez urrutitik kontrolatzen dira seinaleztapen-sistema guztiak.

Azkeneko katigamenduek, aldi berean, agente bideografiko osagarria dute. Software aplikazio bat da eta katigamenduaren sinoptikoak ditu. Horrez gain, elementu guztiak agindu eta ikuskatzeko interfaze grafikoaz hornituta dago.

Plataforma bateratu bat hornitu da Metro Bilbaoko katigamendu elektrikoen komunikazioetarako. Plataforma horrek AMNarekiko eta TAKarekiko katigamenduaren interfazeak ordeztuko ditu katigamendu elektriko guztietan (3. eta 4. motakoak), hau da, honako geltoki hauek: Aiboa, Abando, Leioa, Lutzana, Indautxu eta Zazpikaleak.

Komunikazioak

Metro Bilbaoren sarearen ustiapenaren kudeaketa zentralizatu guztia APZtik (Agente Postu Zentralizatu) egiten da. Bertatik ustiapeneko langileekin harremanetan jartzen dira sarean zehar eta baita bidaiariekin ere, azken horiekin megafoniatik (ahotsa) emandako mezuen eta bideo-zaintzako irudien (bideoa) bitartez.

Zerbitzu horiei guztiei funtzionaltasuna emateko, 1. eta 2. lineetan ezarritako komunikazio sistemak hauek dira:

- Zuntz optikoaren sare tronkala.

- Datuak transmititzeko sistema. Metro Bilbaok sistema desberdinei komunikazio-euskarria eskaintzeko bi sare ditu.
- TETRA komunikazio sistema, bai trenbidean (trenentzat) bai dependenzietan (ustiapeneko, mantenimenduko eta segurtasuneko langileak).
- Telefonía automatikoa, interfonoak eta telefonía hautatzailea.
- Megafonia-sistema.
Metro Bilbaoren megafonia-sistemari esker, mezuak geltokietan hedatu daitezke, bai AMNatik, bai geltokiko gainbegiralearen gelatik.
- Telebista-zirkuitu itxiaren sistema.
Bideo-zaintzaren sistemak telebista zirkuitu itxiko kamerek hartzen dituzten irudiak geltokiko gainbegiralearen gelan eta AMNan jasotzeko aukera ematen du.



- Teleadierazle-sistema
Argibide-pantailen helburu nagusia bidaiariei informazioa helaraztea da, hala nola trenen jomuga eta iriste-denbora, baita zerbitzuaren beste gorabehera batzuk ere.

2017an zehar komunikazioei lotutako hainbat jarduketa egin dira, esate baterako: BMTren agente postu zentralizaturako komunikazioen plataforma bateratua eta BMTren geltokietan telebista-zirkuitu itxiko sistema berritzeko lanak.

Aginte-postu zentralizatutik eremuan dauden sistema guztiak eta trenen ustiapena kontrolatzen dira. Horretarako oinarrizkoa da funtzionalitate-maila altua duen komunikazio sistema global bat izatea, guztiz fidagarria eta segurua den sistema izateaz gain.

Aginte-postu zentralizatuaren eta eremuaren arteko audio-komunikazioei dagokienez, BMTk elkarrekiko osagarriak diren hainbat sistema ditu, beharrianen arabera erabiltzen direnak: telefonia-sistema (telefonia administratiboa eta ustiapenerako telefonia), TETRA sistema (linearekin, mantentzearekin, segurtasunarekin eta trenekin harremanetan jartzeko) edo trenekin GSM komunikazioak.

AMN eta teleaginteak

Aginte Mahai Nagusiak, eremutik datozen datuak lortu eta tratatzeko operadore eta zerbitzari-sistemen bitartez, Metro Bilbaoko sareari dagozkion elementu guztien egoera (besteak beste, seinaleztapenarena, trakzio- eta geltoki-elikaduraren kontrolarena, instalazio finkoena eta komunikazio guztiena) kontrolatu eta urrutitik agintzen du.

Horretarako, AMNak komunikazio iraunkorrak finkatzen ditu gela horretako operadoreen eta Metro Bilbaoko ustiapeneko langileen artean (tren-gidariak eta geltokietako gainbegiraleak).

Ondorengoak kudeatzen dira AMNtik:

- Trafikoko teleaginteak trenen egoeraren gainbegiratzea eta kudeatzea ahalbideratzen du metro-sare osoan zehar, baita bideko gailuen egoeraren berri jakitea, ustiapen plana betetzeko egin behar diren ibilbideak ezartzea, aldi baterako bide bakarrak ezartzea, eta behin-behineko zerbitzuak ezartzea ere.
- Energiaren teleaginteak Metro Bilbaoko sarearen trakzio azpi-zentralen eta elektrifikazio-sistemaren gainbegiratze eta kudeaketa ahalbideratzen ditu.
- Instalazio finkoen teleaginteak geltokietako instalazio elektriko-mekanikoen gainbegiratzea eta kudeaketa ahalbideratzen du: ponpaketa-putzuak, haizagailuak, igogailuak eta eskailerak, argiak eta indarra, suteen detekzioa, etab.
- Komunikazioen teleaginteak geltokietako komunikazio-ekipo eta -sistemen gainbegiratzea eta kudeaketa ahalbideratzen ditu, zehazki: datuen transmisio-sarea, TETRA irrati-telefoniaren sarea, argibide-pantailak, megafonia, interfonia eta bideo-zaintza.

2017ean atal horri dagozkion hainbat jarduketa egin dira.

- Arizko tailerretan aginte postu zentralizaturako sistema erredundantea kontratatzeke baldintza teknikoak.
- BMTren aginte-postu zentralizatuan egindako lanak indarrean dauden araudiei egokitzeko. Auditoretza egin eta gero, postuen ergonomiari, argiztapenari, kableatuari, baldintza akustikoei eta aire egokituari lotutako lanak egin ziren aginte-postuan.
- Bilbo Metropoliko Trenbideko garraio eskaintza sortzeko tresna hobetu eta eguneratzeko proiektua.

Elektrifikazioa

Metro Bilbaoko elektrifikazioaren ezaugarri orokorrak ondorengoak dira:

- Metro-unitateak elikatzeke kontaktuzko aire-lineak erabiltzen dira.
- Unitateei dagokien elikaduraren tentsio nominala 1.500 Vcc-koa da.
- Kontaktuzko aire-linea elikatzeke ibilbidean zehar hainbat azpiestazio banatzen dira. Kontaktuzko aire-linea elektrifikazio sektoreetan banatzen da eta horiek zehazteko konektatzen diren azpiestazioei erreparatu behar zaie.



Katenaria zurrunik osatzen du BTMren 2. linearen elektrifikazioa. Katenaria horri esker, galibo txikia duten tunelak elektrifika daitezke, eusteko kablerik ez baita behar eta kontaktuzko haria eusteko aluminiozko profil zurrunka erabiltzen baita. Era berean, aluminiozko aire-profilen sekzioa dela-eta, ez da feeder lagungarriez baliatu behar.

Bestalde, gela teknikoetan talde osagarriak, behe tentsioko koadro orokorra, etengabeko elikadura-sistema, hozte-sistema, argien eta indarraren sistema eta elementu osagarriak jarri behar dira.

2017. urtean zehar lan hauek egin ziren:

- Urduliz – Plentzia tartean katenariako zutabeak eta oinarriak berritzeko lanak.
- BMTren San Inazioko geltokiko katenariako arkupe funikularrak sendotzeko lanak.
- BMTren Erandioko guneko bihurgunean katenariaren ebakia lekualdatzeko lanak.

Tituluak saltzeko eta balioztatzeko sistema

BMTko 1. eta 2. lineetan txartelak saldu eta balioztatzeko sistema honakoek osatzen dute: batetik, txartelak saldu eta balioztatzeko ekipoek eta, bestetik, ekipoak konektatu eta elikatzen dituen sareak.

BMTn tituluak saldu eta balioztatzeko funtsean hurrengo ekipoak daude:

- Txartel Makina Automatikoak: Era berean, gaur egun makinak KGT txartelak (Barik txartelak) kargatzeko moldatu dira. Gainera, bakarrik BARIK funtzionaltasuna duten makina berriak (MiniTMA) erosi dira, Barik txartel anonimoak ere saltzen dituztenak. Moldapen horri esker, makinak txarteletan saldoa kontsultatzeko terminal bezala erabil daitezke, makina berrietan gertatzen den modura.
- Leihatilako Txartel Makinak.
- Geltokian Sartzeko Kontrol Ekipoak: Txartelak balioztatzeko makinak bi norabideetako ekipoak dira, beraz, pasabidearen bi noranzkoetan txartela baliozta daitezke, baita geltokitik atera edo bertara sartu ere.

Trenbidea

Hauek dira BMTren ezaugarriak esanguratsuenak:

- Peraltearen arrapala: $h/L \leq 2,5 \text{ mm/m}$, izanik h =Peralte eta L =trantsizioaren Luzera.
- Gainazelerazioa: $h/L \leq 5 \text{ m/s}^3$
- Peralte $h=30.000/R$ (gehienez 120 mm); R =erradioa metrotan.

Trenbidearen gainegitura:

- Erraila: UIC-54, 18 metroko barratan, 90 Kg/mm² gogortasunekoak.
- Trabesa: zabalera metrikoko bloke bikoitza txarrantzarekin eta bibrazioen kontrako sistemarekin, SKL1- Vossloh lokailuarekin, hormigoizko plaka batean enbutitua izateko gauza dena, tarte zuzenetan 1,00 m bereztuta eta 400 m baino erradio handiagoko bihurtuetan 1,00 m bereztuta.

2017ean zehar hainbat jarduketa egin dira trenbidean.

- BMTren Larrabasterra eta Urdulizko geltokien artean trenbide-plataforma eta horren elementuak berrizatzeko proiektua.
- BMTren Etxebarriko geltokiko *bretel* berritzeko eta Ibarbengoa-Larrabasterra bideko plataforma berritzeko proiektuak idaztea.



Eraginkortasun energetikoa

Azken urteotan, proiektuaren baitan hainbat jarduketa gauzatu dira eraginkortasun energetikoa hobetzeko. Horrela izanik, 2017an ondorengoak egin dira:

- Bilbo Metropolitiko Trenbideko eskailera automatikoetan energia aurrezteko ekipak hornitzea eta jartzea.

Bestelako jarduketak

Instituzioak behar bezala mantendu daitezen eta funtzionatu dezaten, hainbat jarduketa gauzatu behar izan dira 2017an zehar. Hauek lirateke aipagarrienak:

- Bi trenbidetarako ibilgailua hornitzea, BMTren katenarian mantentze-lanak egiteko.
Hornikuntzaren barne honakoak sartzen dira: bi trenbidetarako ibilgailua BMTren katenarian mantentze lanak egiteko (Bilboko Metroko katenariarako egokia den armazoi bat duena) eta Bilboko Metroko mantentze-lanak egiteko beharrezko edukiera duen garabia. Horrez gain, katenaria zundatzeko ekipamendu pantografoa du, laguntzeko ekipo elektrogenoa eta materiala garraiatzeko lekua.
- BMTren Bagatzako geltokiko ikuskatzaileen gelak berritzea.
BMTren Bagatzako geltokian ikuskatzaileen geletako espazio falta konpondu da eta gela horietako ekipamendua berritu da.



Hora Punta
Egilea: Rodrigo Tapia


Garraio Publikoaren Koordinazioa

Garraio publikoaren koordinazioa

Behatoki orokorra

Bizkaiko garraio publikoen koordinazioaren arduraduna den aldetik, BGPak behatoki orokorreko papera betetzen du, eta garraioaren bilakaeraz interesa duten eragile guztiei informazioa ematen die, hilerro herritarren mugikortasunaz egiten dituen txostenen bidez, webgunean argitaratzen direnak.

Era berean, BGPk beste erakunde batzuekin (estatu-mailakoak nahiz nazioartekoak) lankidetzan dihardu bidaiarien garraio publikoko sistemaren adierazle nagusien bilakaera aldizka aztertzeko, zeinek bere eremuan. Metropolitarr Mugikortasunaren Behatokiko, EMTAko kide da (European Metropolitan Transport Authorities). Bertan, Europako garraio-autoritate nagusiak aldizka biltzen dira eragiten dizkieten gaiak aztertzeko.



Sobre la plataforma


Egilea: Iñaki Alonso Hierro

“Nuestro transporte público, el de Bizkaia” kategoriarako saria.


Garraio publikoa Bizkaian

2017. urtean 169.809.247 bidaiari izan dira.

2. grafikoa. Garraio publikoko bidaiarien bilakaera (milakoak).



3. grafikoa. 2017ko bidaiaren banaketa garraibide desberdinetan.



Garraio Publikoaren erabiltzaileentzako aparkalekuak

Bizkaiko Garraio Partzuergoak garraio moduekin loturiko hiru aparkamendu ditu garraio publikoaren erabiltzaileentzat, Garraio Publikoaren erabiltzaileentzako tarifa merkeekin. Leioan, Etxebarrin eta BECen daude kokaturik, guztira 820 aparkaleku eskuragarri, eta 2017. urtean 324.242 ibilgailuk erabili zituzten aparkaleku horiek.

Barik, kontakturik gabeko txartela

2017. urtea ez dugu salbuespen izan, eta Barik txartelaren harrera onak gora egiten jarraitu du. Izan ere, urtero gero eta txartel gehiago daude merkatuan.

BGPren Barik txartela honako helburu hauekin sortu zen: estandarra, independentea eta erraz erabiltzeko modukoa izatea, kolektibo guztientzat eta garraiobide guztientzat balioduna, eta garraio publikoaren erabiltzaile guztiei konponbideak ematea, erabilera erakargarriagoa eta errazagoa eskainiz.

Barik txartela merkaturatzeko, kolektibo pilotua sartu zen garraiobideetan pixkanaka-pixkanaka eta, 2012ko urriaren 11n, modu masiboan martxan jarri zen.

Metro Bilbaok 2011ko irailean ezarri zuen txartela, Bilboko tranbiak 2011ko abenduan eta Bilbobus hiri-autobusen zerbitzuak 2012ko urtarrilean. Euskotrenen linea orokorrek eta Txorierriko lineak, berriz, maiatza eta ekaina bitartean ezarri zuten eta Bizkaibusek, 2012ko ekainean.

2012ko irailetik aurrera, beste zerbitzu batzuetan ere erabiltzen hasi zen: Ereagako igogailuan, Bizkaia Zubian, Barakaldoko eta Etxebarriko hiri-autobusen zerbitzuetan (Kbus eta Etxebarribus) eta Artxandako funikularrean. Renfek 2013ko azaroan atxiki zitzaion Barik sistemari eta, 2014ko apirilean, lehengo Feve konpainiaren lineak (egun Renferenak dira).

Barik txartel mota bi daude, anonimoa eta pertsonalizatua (argazkiarekin).



Barik txartel anonimoa Metro Bilbao, Larreineta eta Renferen txartelen autosalmentarako makinetan, Zubi Esekiaren eta Artxandako Funikularrean instalazioetan, Bilbobus eta Bizkaibus-eko kabinetan eta Bizkaiko 900 establezimendutan (kutxazain automatikoak, estankoak, kioskoak eta beste lokal komertzial batzuk) baino gehiagotan eskura daiteke.

Txartel pertsonalizatua eskatzen da hileko tituluak eta hainbat profil izan ditzaketen baldintza bereziak eskuratzeko:

- Familia ugaria, F20 kategoria orokorrekoa eta F50 kategoria berezikoa, %20ko eta %50eko deskontuekin hurrenez hurren.
- Giza, 65 urtetik gorakoentzat, erabateko baliaezintasuna edo handia dutenentzat edo %65eko ezintasuna edo handiagoa dutenentzat.
- Bilbotrans, (Bilboko Udala).
- Gazte, Bizkian eroldaturiko 26 urtetik beherakoentzat.

Barik txartel-moten hazkundea esponentziala izan zen; 2017ko abenduaren 31n 1.579.907 Barik txartel egon ziren zirkulazioan, horien %72 anonimoak eta %28 pertsonalizatuak.

Barik txartela 2017an.

	Pertsonalizatua	Anonimoa	GUZTIRA	
Barik Kide	209.531	1.135.196	1.344.727	85%
Barik Giza	235.180		235.180	15%
GUZTIRA	444.711	1.135.196	1.579.907	100%

Garraio publikoetan Barik txartelarekin bidaiatu ahal izateko, horrek bidaia-txartelaren bat izan behar du. Horretarako, alde zuzenetik kargatu behar dira txarteletan.

Partzuergoko Barik txartelek bi txartel mota onartzen dituzte: diru-txartelak eta epe-txartelak.

- Diru tituluak: Creditrans eta Gizatrans. Gehienez 90,00 euro kargatu daitezke, eta balioztatze bakoitzak dagokion tarifa deskontatzen du. Kasuan kasu, honako deskontuak aplika daitezke: profil deskontuak, garraio aldatetakoak, barneko garraio aldatetakoak...
- Aldi baterako tituluak.
2017ko martxoaren 7ra arte garraio modu bakarrerako Gazte Metro Bilbao eta Gazte Bizkaibus hileko tituluak merkaturatu ziren. Hileko Gazte Bilbaok indarrean jarraitzen du.

2017ko apirilaren 8an metro zerbitzuko 3. linea martxan jartzearekin batera aldi baterako titulu multimodalak ezarri ziren. Bidai 50, Bidai 70 eta Bidai Oro herritarrentzako, orokorrean, eta Gazte 70 eta Gazte Oro 26 urtez azpiko gazteentzako. Honek Gazte titulu monomodalak kentzea, Gazte Metro Bilbao eta Gazte Bizkaibus ekarri zituen.

Barik txartelak eta horren barruan sartzen diren bidaia-tituluek egoki funtzionatu dezaten, beharrezkoa da ezagutza orokorreko arauak ezartzea. Hori dela eta, bi ordenantza hauek egin ziren: Barik txartelari eta txartel horrek dakartzan garraio-tituluei buruzko ordenantza arau-emailea eta Barik txartelari lotutako zerbitzuak emateagatik prezio publikoak arautzen dituen ordenantza. Biak argitara eman ziren Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (BAO) eta PGBren webgunean.

Barik txartela leku hauetan kargatu daiteke: Metro Bilbao, Euskotren, Euskotran, Renfe eta Feveren makina automatikoetan; Artxandako eta Larreinetako funikularren instalazioetan; tabako-denda eta kiosko komertzialetan; eta orotariko kutxazainetan (soilik diru-tituluak).

Horrez gain, BGPren webgunetik edozein titulu erosi eta kargatu daiteke Barik txartelean eta, 2016ko otsailetik –funtzionamendua kolektibo pilotu baten bidez probatu eta egiaztatu izan ostean–, telefono mugikorren bitartez egin daitezke kontsultak eta kargatzeak NFC teknologia erabilita; hain zuzen ere, ordainketa-pasabide baten bitartez ordaintzen da kasuan kasuko zenbatekoa, BGPren zerbitzari zentraletan. Azken bi aukera horiei esker, erabiltzaileek edonondik erosi eta kargatu ditzakete tituluak Barik txartelean, diru-tituluak zein aldi baterakoak.

Webgunearen bidezko kargatzeetan bi prozesu egiten dira, aldi desberdinetan. Lehena webgunearen bitartez gauzatzen da: bertan, Barik txartelean kargatu nahi den titulua erosi eta ordaindu egiten da. Bigarrenean, aldiz, eragiketa burutzen da: erabiltzailea txartela kargatzeko puntu batera bertaratzen denean kargatzen da titulua, hain zuzen ere, txartelaren saldoa kontsultatzean.

Telefono mugikorren kasuan, aldiz, prozesua osorik egiten da; hau da, erabiltzailea ez du kargatze-puntu batera jo behar. Alde horrek hobekuntza nabaria ekarri du, eta harrera ona izan du garraibide publikoaren erabiltzaileen artean.

BGPren titulu guztiak kargatu daitezke, diru-txartelak edo aldi baterakoak izan.



Sencillo
Egilea: Nuria Herrero

2017ko azaroan abian jarri zen garraio publikoaren bulego sare integrala. Bezerearen arretarako hamaika bulego ditu eta leihatila bakar gisa aritzen dira. 94-685.50.00 telefono zenbaki bakarra ere abian jarri zen.

BGParen garraio-txartelak

Gaur egun, Bizkaiak zenbait administrazio dauzka, bidaiarien garraio publikoaren eremuan eskumenak dauzkatenak. Haietako bakoitzak bere bitartekoak eta bere tarifa-politika dauzka. Horrenbestez, bakoitzak bere zonakatzea, bere txartelak eta bere kudeaketa eredua dauzka.

Sakabanaketaren ondorioz, eta 1995. urtean BHT inauguratu zenez gero, alor honetan aldaketak egin beharra egon zen. Hori dela eta, 1997. urtean BGPk tarifak koordinatzeko eta bidaiarien garraio publikoa berrantolatzeke esparru-akordioak negoziatu zituen eta ohiko txartelak sortu zituen. Eusko Jaurkitzak, Bizkaiko Foru Aldundiak, Bilboko Udalak eta Bizkaiko Garraio Partzuergoak biak sinatu zituzten.

2000. urtean Creditrans sortu zen, 2008an Gizatrans eta 2014an Gazte Metro Bilbao eta Gazte Bizkaibus hileko tituluak. Azken horiek 26 urtez azpiko gazteei zuzenduta daude. 2015eko urtarrian aldiz, partzuergoko hirugarren Gazte titulua ezarri zen, Gazte Bilbao.

2017ko martxoan, metro zerbitzuko 3. Linea irekitzean, partzuergoko aldi baterako titulu multimodal berriak ezarri ziren (Bidai 50, Bidai 70, Bidai Oro, Gazte 70 eta Gazte Oro).


Bidai izeneko tituluak 26 urtetik gorakoentzat dira, eta Metro Bilbaon, Euskotrenen, Bilboko tranbian eta Larreinetako funikularrean erabil daitezke.

Gazte tituluak, aldiz, Bizkaian erroldatuta dauden 26 urtetik beherakoentzat dira eta, aipatutako garraio bideez gainera, Bizkaibusen ere erabil daitezke. Bidai 50, Bidai 70 eta Gazte 70 bidaia mugatuko eta aldi baterako tituluak dira; Bidai Oro eta Gazte Oro tituluekin, ordea, mugarik gabe bidaia daitezke titulua indarrean egon bitartean.


2017ko ekitaldian zehar Bizkaian 140,3 milioi bidaia baino gehiago egin ziren BGPk emandako garraio tituluekin. % 67,1 Creditrans tarifarekin egindako bidaiei dagokie, % 17,4 Gizatransi eta % 14,2 aldi baterako tituluei; gainerako % 1,3, aldiz, metro zerbitzurako balio duen eta euskarri magnetikoa duen partzuergoko aldi baterako tituluari dagokio.

Datu horien arabera, Bizkaiko Lurralde Historikoan egindako bidaia guztien %82,65koa izan zen merkatu-kuota.

4. grafikoa. Garraibide desberdinetan ohiko txartelen erabilera.



5. grafikoa. Ohiko txarteekin egindako bidaien bilakaera eta kuota merkatuan.



Creditrans

2000ko irailean sortu zen, esparru akordioaren garapenaren ondorioz. Azken 10 urteetan garraio publikoaren erabiltzaileentzat erreferentzia bihurtu da.

Txartel mota honek diru-zenbateko bat gordetzen du, eta garraio zerbitzu bakoitzak bere tarifak aplikatzen dizkio gero, egindako joan-etorriaren arabera. Txartel honetan aplikatzen den tarifa merkeagoa da joan-etorriko txartelena baino.


Creditransek, gainera, transbordoak egitea errazten du, prezio merkeagoan, bigarren operatzailean bidaia konbinatuaren prezio osoaren %20 deskontatzen duelako.

2009ko urtarrilean familia ugariantzako garraio txartelak sortu ziren. BGPak Hirukotrans sortu zuen, Creditrans daukaten familia ugariantzat.


2012an, Barik txartela abiarazi zela eta, euskarri honetan dago garraio-titulu hori, bertan karga daiteke gutxienez 5€-rekin, eta txartelean gehienez 90€-ko saldoa eduki daiteke.

Creditrans txartelak %55,49 ezarpena izan zuen merkatuan 2017. urtean.

6. grafikoa. Garraiobide desberdinetan Creditrans txartelaren erabilera 2017an.



7. grafikoa. Creditrans txartelarekin egindako bidaien bilakaera eta merkatu kuota 2017an.



Gizatrans

2008 hasieran BGPak Gizatrans txartel berria sortu du; txartel honek hobaridun tarifa soziala du eta soilik erabil dezakete 65 urteko edo gehiagoko pertsonak edo ezintasun jakin bat duten pertsonak.

Hasieran, bi modutan baizik ezin erabil zitekeen, baina urtearen barruan, Creditrans-ek funtzionatzen duen ia sare osora zabaldu zen haren erabilera.


Gizatrans-ek titularra onuraduna dela egiaztatzen duen agiri bat behar du (Barik berezko txartela), baliozkotzea egiteko eta, beraz, bidaia ordaintzeko behar den txartela eskuratzeko. Horrenbestez, txartel pertsonalizatua da eta titularrak bakarrik erabili ahal du.

Gizatrans-ek ere izan zituen familia ugariantzako txartel bereziak, 2009ko urtarrilean.


2017ean 24.479.467 bidaiari lekualdatu dira Bizkaiko Lurraldean titulu hori erabiliz; hau da, aurreko urtean baino %2,74 gehiago.

Gizatrans txartelak %14,42eko ezarpena izan zuen merkatuan 2017. urtean.

8. grafikoa. Garraiobide desberdinetan Gizatrans txartelaren erabilera 2017an.



9. grafikoa. Gizatrans txartelarekin egindako bidaien bilakaera eta merkatu kuota 2017an.



Títulos temporales

2014ko ekainaren 13an BGPren Kontseilu Nagusiak gazteentzako aldi baterako garraio modu bakarreko txartelak sortzea erabaki zuen: Gazte tituluak. 2014ko uztailaren 21ean, Barik txartelaren baitan Bizkaibusen eta Metroan erabiltzeko Gazte Bizkaibus eta Gazte Metro Bilbao tituluak merkaturatu ziren.

2015eko urtarrilaren 14an, Bilbobusen Barik titulua ezarri zen: Gazte Bilbao.

2017ko martxoaren 7an aldi baterako titulu multimodalak irteerarekin, Gazte Metro Bilbao eta Gazte Bizkaibus hileko tituluak saltzeari utzi zitzaion.

Bakarrik Bariken hileroko Gazte modu bakarrekoa mantendu egin zen, Bilbobusen eta Artxandako funikularrean bidaiatzeko balio izanda. 26 urtetik beherako eta Bizkaiko edozein udalerritan erroldatutako gazteei zuzenduta dago. Erabiltzaileak aukeratutako zonetan eta hautatutako garraioa erabiliz txartela erosten den egunetik aurrera zenbatzen hasita 30 egunez jarraian mugarik gabe bidaiatzeko txartel iragankorra da.

2017an 283.121 bidaia inguru egin ziren titulu horrekin.

2017ko martxoaren 8az geroztik, Bizkaiko garraio publikoaren erabiltzaileek beren Barik txartelean hainbat bidaia operadoretarako balio duten titulu multimodalak kargatu ditzakete, mugatuak zein mugagabeak, oro har jende guztiari zuzendutakoak zein 26 urtez azpiko gazteei zuzendutakoak. Pertsonalizatutako Barik txartel batean kargatu daitezke, eta titularrak bakarrik erabil ditzake.

- Bidai tituluak:

Oro har jende guztiari zuzendutakoak. Metro Bilbaon, Euskotrenen, Bilboko Tranbian eta Larreinetako funikularrean bidaiatzeko balio dute.

- Bidaia mugatuko tituluak: Bidai 50 eta Bidai 70: Baliozkotasun datatik zenbatzen hasita elkarren segidako 30 egunetan zehar 50 edo 70 bidaia egin daitezke, hurrenez hurren, Barik txartelean kargatzerakoan aukeratutako jatorrien eta xedeen artean. Behin bidaiak amaituta, berriro ere kargatu daitezke.
- Bidaia mugagabeko tituluak: Bidai Oro: Baliozkotasun datatik zenbatzen hasita elkarren segidako 30 egunetan zehar nahi adina bidaia egin daitezke Barik txartelean kargatzerakoan aukeratutako jatorrien eta xedeen artean.

- **Gazte tituluak:**

Bizkaiko edozein udalerritan erroldatuta dauden eta 26 urte baino gutxiago dutenei zuzenduta daude. Metro Bilbaon, Euskotrenen, Bilboko Tranbian eta Larreinetako funikularrean bidaiatzeko balio dute.

- Bidaia mugatuko tituluak: **Gazte 70:** Baliozkotasun datatik zenbatzen hasita elkarren segidako 30 egunetan zehar 70 bidaia egin ahal izango dira, hurrenez hurren, Barik txartelean kargatzerakoan aukeratutako jatorrien eta xedeen artean. Behin 70 bidaiak amaituta, berriro ere kargatu daiteke.
- Bidaia mugagabeko tituluak: **Gazte Oro:** Baliozkotasun datatik zenbatzen hasita, elkarren segidako 30 egunetan zehar nahi adina bidaia egin daitezke Barik txartelean kargatzerakoan aukeratutako jatorrien eta xedeen artean.

Familia ugariaren profila egiaztatzen dutenei %20ko (kategoria orokorrekoa bada) edo %50eko (kategoria berezikoa bada) deskontua aplikatuko zaie tituluaren baliozkotzea hasten den unetik.

Ezarri zenetik 2017ko abenduaren 31ra bitartean 14.741.817 bidaia egin ziren Bidai 50, Bidai 70 eta Bidai Oro txarteekin, eta 3.935.215 bidaia Gazte 70 eta Gazte Oro txarteekin.



Aldian behingo titulu komuna

3. linea abian jarri zenean eta noizbehinkako bidaiariei erantzun bat emate aldera, banda magnetikodun txartel bat ezarri zen, BGPk emandakoa eta metro zerbitzuan bidaia bakarra egiteko balio duena (1., 2. eta 3. lineak). Txartelak prezio desberdina dauka erosi den zona kopuruaren arabera, eta 2 ordu irauten du, sarrera ezeztatu den unetik zenbatzen hasita.

Metro Bilbaoren instalazioetan eta Euskotrenen 3. linean saltzen da, eta familia ugariaren profila dutela egiaztatzen dutenek operadore bien Garraio Publikoko Bulegoetan eskuratu dezakete. Horiek %20ko edo %50eko deskontua izango dute, kategoriaren arabera (orokorra edo berezia).

Ezarri zenetik abenduaren 31ra bitartean 1.771.807 bidaia egin ziren txartel horrekin.



Elkarreragingarritasuna

Barik txartelak izan duen zabalkundea ikusita, erakundeek txartela Bizkaitik kanpo erabiltzeko aukera ematea adostu dute. Helburu horrekin, hain zuzen, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak eta Bizkaiko Garraio Partzuergoak hitzarmena sinatu zuten Barik eta Mugi txartelak lurralde bakoitzeko ET/FV-ren garraiobide desberdinetan erabiltzeko. Horrek txartelen elkarreragingarritasuna ahalbidetu du zona horretan.

Eusko Jaurlaritzak eta Lurralde Historiko bakoitzeko garraioaren agintariek elkarreragingarritasunerako masterplan bat adostu dute, garraio-txartela EAEko lurralde guztietan erabili ahal izateko, txartel barruko diru-txartela erabiliz.



Funicular de La Reineta
Egilea: Asier Viguri Alonso

Elkarreragingarritasuna pixkanaka-pixkanaka zabaltzen ari da. 2014an, Bilboko eta Larreinetako funikularretan ahalbidetu zen Bat eta Mugi txartelak erabiltzea, eta Barik txartela Gasteizko tranbian. Azken garraiobide horretan, Mugi txartela ere onartu zen 2015ean. 2016an, Euskotrenen Linea Orokorrean ere ezarri ziren txartel horiek, eta Bat txartela Metro Bilbaon. 2017ko otsailaz geroztik pixkanaka ezarri zen Barik txartelaren erabilera Donostiako DBus-en lineetan.

Guztira, 537.104 bidaia egin dira elkarreragingarritasunean, proiektuarekin bat egin duten garraiobide guztietan:


- 92.510 Bizkaian, Bat eta Mugi txarteekin (Metro Bilbaon, Bilboko tranbian eta Larreinetako funikularrean).
- 272.579 Araban, Barik eta Mugi txarteekin.
- 172.015 Euskotrenen Linea Orokorrean, hiru txarteekin.

BBC Txartela

2014ko uztailan BBC txartela ezarri zen, Bilbao Card txartelaren eraginpeko eremua ordeztu eta hedatu duena. Bilboko mugak gainditu eta Bizkaia ere hartzen duen txartela bihurtu da, eta Bizkaibusen ere erabil daiteke. Bilbao Bizkaia Card (BBC) izena eman zaio, eta mugarik gabe sistemarekin bat egindako garraio moduetan 24, 48 edo 72 orduz bidaiatzeko eskura daiteke, erositako txartel motaren arabera.

2017ko urtarrila eta iraila bitartean ez zen merkaturatu, berriz hasten da bere merkaturatzea 2017ko urrian. Saldutako txartelen % 57,3 24 ordutan erabiltzeko izan ziren, %25,2, berriz, 48 ordutan eta % 17,5, ordea, 72 ordutan.

10. grafikoa. BBC txartela erabiltzeko moduen banaketa 2017an.



Bizkaiko garraio publikoen bezeroei arreta emateko bulegoen sarea

